

**AITA GUZTIZ SANTUA**

Ikaragarria da, egundokoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Agiritegian dagoan ondasun dokumentala. Gure herrialdearen azkenengo 700 urteko historia gordetan dabe han. Ikerlarienezako ahaleko iturri emonkorra. Agiri moltsoa eskuz idatzita dago, gehien baten. XX. gizaldirik beherakoa, batez be. Idatziok eskribauak, abadeak eta udal edo aldundiko idazkariak dagoz idatzita, zatirik handi-handiengan. Agiriok, baina, ia %100ean espainolez dagoz, lantzean batzuk frantsesez eta eskuetako atzamarrakaz kontau leitekezan bakan batzuk euskeraz. Hau be ikaragarria, gero, kontuan hartuten bada, XX. gizaldia hasi baino lehenagotxura arte, ia bizkaitarrik gehienak euskaldun berbeta bakardunak izan dirana. Honetarako argibidea, agiri askotan aitauten dan euskeraz gauzak barrian esan behar izana (danak ulertu eien!). Asko da, gero, beharizan hori egon, beharizana sarri be sarri agoz estaldu behar, eta, halandabe, agoz euskeraz esandakoaren testu idatzirik inon be ez agertutea!

Beste zeozertan ikertuten gengoza, braust!, ezustean, beherago dakargun testu laburtxua agertu jakun begien aurrean. Lehenengo-lehenengoan, gu zurtz eginda. Gero, pozarren, zelangoz ez!

Antza, Pio IX. Aita Santuari, berak Gernikako Batzarlekuko Foru Eleizeari egindako mesede eta emondako graziakaitik, es-

kerrona erakutsi gurean, mezua heldu eragin gura izan eutsoen Bizkaiko Batzar Nagusietako kideak. Horretarako mozinoa aurkeztu eben 1864. urteko garagarriaren 24an, eta hurrengo egunean, Gernikan bertan batzartuta, onartu egin eben. Aita Santuari eskerrak emoteko mezua eroateko, horretarako beren-beregi, aukeratutako mezularia bialdu behar ebela be onartu eben. Halan bada, Antonio Maria Murua jauna aukeratu eben zeregin horretarako. Gizon harek gogotsu onartu eban eskabidea, baina beraren osasun makala zala-eta, behin eta barrian atzeratu behar izan eban Erromarako joan-etorria. Azkenean, 1866ko bagilaren 23an, eguerdiko 12.30etan bete eban aspaldian agindutakoa. Aita Santuak, ordainean, bedeinkatu ebazan Bizkaiko Foru Aldundia, haren ordezkariak eta bizkaitar guztiak. Urte beratako garagarriaren 12an, Erromatik etxera etorrita, bertan jazotako guztiaren ganean jakitun imini ebazan Foru Batzarretako kideak aitatutako Murua jaun harek.

Sasoi hatan, Espainia aldean, euskal lege zaharren aurkako giroa bizi-bizi egoan. Sánchez Silva espainiar senatari jaunak foruen aurkako eruki bako berbaldia egin eban 1864. urteko bagilaren 13, 14 eta 15ean. Hareri erantzunez, Pedro Egaña Euskal Herriko senatari arabarrak hile beratako 15, 16 eta 17an berbaldi sutsu eta luzea egin eban euskal foruen alde Espainiako senatuan. Baita Francisco Barroeta Aldamar senatari gipuzkoarrak be, beraren aldetik, berea egin eban sutsu eta gogor.

Aita Santuari bialdutako mezu hatan, bertan halan irakurri leiteken lez, berak Foru Eleizeari graziak emoteagaitik eskerroa erakusteko baino, mezuan foruen aldeko apologia eginda, gehiago emoten dau foruen arerioakandiko babesaren bila joan zirala Erromara, mezulari eta guzti bialduta.

Bide batez, esan daigun, Pio IX Aita Santuak ekonomian oinarritutako liberalismo, sozialismo eta modernismoaren aurka eukan eritxia argi lotu zala 1864. urteko abenduaren 8an agiriko egin ebazan “Quanta cura” entziklikan eta “Syllabus errorum” dalako katalogoan.

Guk aurkitutako testu hori dakarren agiriak 1865eko zementiaren 10 eguna dau agiriko, testua onartu eta urte bete garrenekoa, hatan be. Ahor, bada, testua:

**Aita guztiz Santua:**

“Batuta gagozala gueure foru usadijo eta ecandu onac irudituten dituzan arecharen azpijan, jaquin dogu esquer on, eta pozezco negar malcuacaz, celaco gracijac eguin deutzazuzan, gure asaba onac arech onen guerizpian Jaungoicuaaren amaren onzari (?) jaso eben elessa oni, escatuteco bertan cerubari, emon dagutigula emen batuten garianoi biar dogun fedeco eta jaquiturijaco espirituba.

*Santisimo Padre.*

*La Junta general del N.º Sr. Nob. y M. de Vizcaya, reunida en el árbol de Guernica, en el día anterior acordó se fuesen á la ciudad por conducto del Sr. D. Antonio y uno de los Caballeros mas nobles y piadosos. quinto repetitivo Mensaje.*

*Aita guztiz Santua*

*Batuta gagozala gueure foru usadijo irudituten dituzan arecharen azpijan, jaquin pozezco negar malcuacaz, celaco gracijac egu re asaba onac arech onen guerizpian Jaungoicuaari jaso eben elessa oni, escatuteco bertan dagutigula emen batuten garianoi biar dogun fedeco espirituba.*

*Egun guztijetan, gueure lanac asitera guazanian gueure erri onraduaren oneraco, auzpaztuten garianian Ama Doncella garbi Vizcaico Patroniaren altariaren aurrian, urteten dabe gure Vijotzetatic, eta eguiten ditugu gueure ezpanacaz escari oneec.*

*Erregutu eguizu ó Marija, Pedroren ondorengo naitaguez inguratua daguanagaitic! Gorde egizuz euscaldunen foruac, bada eurac guri quenduteco alegiñac gustijac eguiten ditube iracatsi guzurrezco ta gaistaquerijac! Estaldu eguizu ceure mantuagaz gure Erreguiña eta Andria, ain dan fediarri ta zucentasunari gure errijan iraun eraguiten deutsana.*

*Jaungoicuaren Amac lagunduten deuscu! Artuten dozunian, ó Aita guztiz Santua, gure vijotzen barru barrutic aguertuten dogun ta bialduten deutsugun gueure zuganaco eraspen ta gurarijen barri ta albistia, arren zuc bere lagundu eguiguzu Virgina Marijac lagunduten deuscun leguez, bialduten deutsezula zure bendeziño santuba gure foru maiteen arechari, eta bere guerizpian baturic daguan errijari.*

*Guernicaco arecharen aspijan, Garagarrillaren ogue-ta irugarren egunian, milla zortzireun eta irurogueta laugarren urtian.”*

(Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegia: J-01349/001 - Carpeta General de Culto y Clero. Bienio 1862-1864.)

Gaurko grafia erabilia:

*“Batuta gagozala geure foru, usadio eta ekandu onak irudituten dituzan haretxaren azpian, jakin dogu eskeron, eta pozezko negar malkoakaz, zelako graziak egin deutzazuzan, gure asaba onak haretx honen gerizpean Jaungoikoaren amaren onzari (?) jaso eben eleiza boni, eskatuteko bertan zeruari, emon dagigula hemen batuten gareanoi behar dogun fedeko eta jakituriako espiritua.*

Egun guztietan, geure lanak hasitera goazanean geure herri onraduaren onerako, abuspeztuten gareanean Ama Donzeila garbi Bizkaiko Patronearen altarearen aurrean, urteten dabe gure Bibotzetatik, eta egiten ditugu geure ezpanakaz eskari honeek.

Erregutu egizu o Maria, Pedroren ondorengo naibagez inguratua dagoanagaitik! Gorde egizuz euskaldunen foruak, bada eurak guri kenduteko abaleginak guztiak egiten ditue irakatsi guzurrezko eta gaiztakeriak! Estaldu egizu zeure mantuagaz gure Erregina eta Andrea, baina dan fedeari eta zuzentasunari gure herrian irauin eragiten deusana.

Jaungoikoaren Amak lagunduten deusku! Hartuten dozunean, o Aita guztiz Santua, gure bibotzen barrubarrutik agertuten dogun eta bialduten deusugun geure zukanako eraspén eta gurarien barri eta albistea, arren zuk bere lagundu egiguzu Birgiña Mariak lagunduten deuskun legez, bialduten deutsezula zure bendezino santua gure foru maiteen haretxari, eta bere gerizpean baturik dagoan herriari.

Gernikako haretxaren azpian, garagarrilaren hogeta hirugarren egunean, mila zortzirehun eta hirurogeta laugarren urtean.”

*Los señores del Sinerio, al mismo tiempo que con  
por objeto exponer al Vicario de Cristo la gratia  
de la Católica Vizcaya, implora la santa y padre.  
Vuestra Santidad. Bilbao 30 de Noviembre*

*Santisimo Padre.*

*El Diputado general del bando  
Ciucino. = Ten de Zabáburu.*

*El Diputado  
Samborio. =*

Testua erderearen itzulpena da. 1864ko garagarrilaren 25eko egun horretako batzarreko agirietan ikusi leiteke testua, erderaz, baina. Sasoi hatan, batzar agirietako testu asko euskeratuten ziran. Orduko agiri ofizialetan, irarri ziranetan, euskeratutakoen artean baina, hau testuau ez da inon agertu. Euskeratu barik lotu zan, aurki. Ostera, eskuz idatzitakoa (euskeratua) gure artera heldu da, zeharbidez baino ez bada be.

XIX. gizaldiko bizkaierazko idazlerik handienen eskolea edo eragina igarri leiteke testu horren atzean. Hareek erabilitako lexikoa, estiloa edo berbakerea eta abar, antera handikoak dira orduko Frai José Antonio Uriarte, Bixenta Mogel eta euren jarraitzaileak erabilitakoakaz, dalako Markinako eskolearen ezaugarriakaz. Egia esan, euki Frai José Antonio Uriarte ei dauke orduko Batzar Nagusietako agirien euskeratzaile nagusizat. Baina ezin izan dogu jakin zehatz-mehatz nor izan zan aurkeztu deusugun testutxu horren euskeratzailea.

**OHARRA:** Berba bat ezin izan dogu ondo ulertu edo deszifrau (itaun ikurraren ondoan, testuan azpimarratua). Baleiteke errakuntzaren bat izatea, erderazko testuan esaldi horren ordezkotzat “...*las gracias que Vuestra Santidad se ha dignado derramar sobre el templo erigido a la Madre de Dios a la sombra de este árbol,...*” esaldia dakar-eta.

## Iturri dokumentalak

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegia:
  - J-01349/001 – Carpeta general de Culto y Clero. Bienio 1862-1864.
  - J-00438 – Actas de Juntas Generales. Mensaje redactado al Papa Pío IX,
    - 25.07.1864 (p. 41)
  - J-00439 – Actas de Juntas Generales. Voto de gratitud al Papa Pío IX,
    - 12.07.1866 (p. 106)

- J-00441/001 – Actas de Juntas Generales. Indulgencias y Gracias Espirituales del Papa Pío IX a la iglesia juradera de Santa María de la Antigua de Guernica, 15.07.1870 (p. 110)
- Bermeoko Udal Agiritegia:
- 1249-9 bis – Ataque a fueros vascongados.
- DICCIONARIO DE CIENCIAS ECLESIASTICAS Tomo XIII, Niceto Alonso  
Perujo y Juan Pérez Angulo, LIBRERIA DE SUBIRANA H<sup>nos</sup>  
EDITORES, 1883.
- BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK ETA EUSKARA: 1833-1877.  
EUSKARAZKO TESTUEN BILDUMA ETA AZTERKETA, Alkarlanean Andres Urrutiaren zuzendaritzapean, BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK, 2003.

*Iniaki Martiartu  
Bakio  
2007ko abendua*